

◆ **"ur bedeinkatue ala ardao madarikatue obiaue?"**

Ur bedeinkatua ala ardao madarikatua hobea?

◆ **"urek eroan, urek ekarri"**

Urak eroan, urak ekarri

**"oilloak eskatzien txise
eiñ artien itxaron"**

*Oiloak eskaratzean txisa
egin artean itxaron*

12.- AJEAK, AKATSAK, DOHAINAK

◆ **"alaba bakar azidxe, etxerako gerra bizidxe"**

Alabea bakar hazia, etxerako gerra bizia

◆ **"ariñ ta ondo usoak bakarrik"**

Arin eta ondo usoak bakarrik

◆ **"arranuek lumek bier,
txepetxak be bai"**

*Arranoak lumak behar,
txepetxak be bai*

◆ **"oilloak eskatzien txise eiñ
artien itxaron"**

*Oiloak eskaratzean txisa
egin artean itxaron*



- ◆ **"asko dekot ez dabenantzat nai"**
"Asko daukat" ez dabenarentzat nahi
- ◆ **"eiztari txarrak eskopetieri erru"**
Ehiztari txarrak eskopeteari erru
- ◆ **"gari ona kaixatik saltzen da"**
Gari ona kaxatik saltzen da
- ◆ **"artzeko pronto, emoteko tonto"**
Hartzeko pronto, emoteko tonto
- ◆ **"igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa"**
Igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa
- ◆ **"itsuek be beittu eitten deu, baiña ikusi ez"**
Itsuak be begiratu egiten dau, baina ikusi ez

13.- USTEAK

- ◆ **"balizko errotiek, urunik ez"**
Balizko errotak, urunik ez
- ◆ **"leku guztidxetan, txakurrak ortozik"**
Leku guztietan txakurrak ortozik

◆ **"urruneko beidzek, errapie andidxe"**

Urruneko behiak, errapea handia

◆ **"urruneko intxaurrek hamalau, urreratu ta lau"**

Urruneko intxurrek hamalau, urreratu eta lau

◆ **"usteak erdi ustel"**

Usteak erdi ustel

"urruneko beidzek, errapie andidxe"

Urruneko behiak, errapea handia



14.-GARAI ETA ASMO ONAK

- ◆ **"bart eñ dot amesetan: ona badan, danan partez; txarra badan, inontzat bez"**

Bart egin dot amesetan: ona bada, danen partez; txarra bada, inorentzat be ez

- ◆ **"egunik onenak, txarridxe ilten dan astie ta ezkontzen dan urtie"**

Egunik onenak, txarria hilten dan astea eta ezkontzen dan urtea

- ◆ **"ezkondu ta odolostak, beti berotan"**

Ezkondu eta odolostak, beti berotan

15.-ERETXIAK



◆ **"bi begik baño geidxau ikusten dabe lauk"**

Bi begik baino gehiago ikusten dabe lauk

◆ **"eguzkidxe nora, zapidxe ara"**

Eguzkia nora, zapia hara

◆ **"zenbat buru, ainbet aburu"**

Zenbat buru, hainbat aburu

16.- OSASUNA

◆ **"gabien parrandan ta goixien logure, ez zara zeu maitie osasunen gure"**

Gauean parrandan eta goizean logura, ez zara zeu maitea osasunaren gura

◆ **"osasune, esker gitxiko ondasune"**

Osasuna, esker gitxiko ondasuna

◆ **"zeiñ agiñetan dan miñe, an da miñe"**

Zein hagineta dan mina, han da mina

◆ **"zeiñ agiñetan dan miñe, an da miñe"**

Zein hagineta dan mina, han da mina

17.- ARDURAK

◆ **"batalako beste, txakurren odoloste"**

Bata lako beste, txakurren odoloste

◆ **"or konpon, marianton"**

Hor konpon Marianton

◆ **"nagusi askon astoa, goseak ill"**

Nagusi askoren astoa, goseak hil

◆ **"jabe askon txakurre, gosiek ill"**

Jabe askoren txakurra, gosiek hil



**"nagusi askon astoa,
goseak ill"**
*Nagusi askoren astoa,
goseak hil*

18.- AHOLKUAK

◆ **"gitxi gasteu, asko nasteu ta bueltak ekarri"**

Gitxi gastau, asko nahastau eta bueltak ekarri

◆ **"ondo ibilli, gitxi gasta ta bueltak amari"**

Ondo ibili, gitxi gastau eta bueltak amari

◆ **"sue ta ure, beleunetik behera"**

Sua eta ura, belaunetik behera

◆ **"jan barik, etxauk kakarik"**

Jan barik ez jagok kakarik



"jan barik, etxauk kakarik"

Jan barik ez jagok kakarik

19.- IRAINAK

- ◆ **"barrie, burlie"**
Barrea burlea
- ◆ **"txistue, ondarrun burlie"**
Txistua, Ondarrun burla

20.-BESTEAK

- ◆ **"joan da etorri, txapela gorri"**
Joan eta etorri, txapela gorri
- ◆ **"kazuelie unteu, erroidxe egon zan lekuen baño janari geidxau dau ta"**
Kazuela untau, erroia egon zan lekuan baino janari gehiago dago eta
- ◆ **"zenbat gixonarru ete dekozuz kamaran"**
/ " gixonan narruek dekotez kamaran"
*Zenbat gizonarru ete daukazuz kamaran/
Gizonen narruak daukadaz kamaran*
- ◆ **"...ezta geuerdiko euntzen eztule"**
...ez da gauerdiko ahuntzaren eztula

◆ **"lunes gernikes, golperik pez"**

Lunes gernikes, kolperik be ez

◆ **andidxe badan, tartana; txikidxe badan, enana;
sekule ezta faltako zeresana**

Handia bada tartana; txikia bada enana; sekula ez da faltako zeresana



**"lunes gernikes,
golperik pez"**

*Lunes gernikes,
kolperik be ez*

"kanpoko larrosie, etxeko arantzie"
Kanpoko larrosea, etxeko arantzea



◆ **"etxien otso ta auzoan uso"**
/"kalien uso ta etxien otso"
/"kanpoan uso, etxien otso"

*Etxean otso eta auzoan uso /
Kalean uso eta etxean otso
/ Kanpoan uso, etxean otso*

◆ **"gizona, alegre kalien,
etxien gerrie"**

*Gizona, alegre kalean,
etxean gerrea*

◆ **"kanpo eder etxien gerrie /
kanpo eder etxe kakatsu"**

*Kanpoeder etxean gerra /
Kanpoeder etxe kakatsu*

◆ **"jaun kanpo-eder, etxekalte"**

Jaun kanpoeder, etxe kalte

◆ **"kanpoko larrosie, etxeko
arantzie"**


*Kanpoko larrosea, etxeko
arantzea*

◆ **"lehen harro zana, emaztien
esanetan otzana"**

*Lehen harro zana, emaztearen
esanetan, otzana*

7.- EGUTEGIA

- ◆ **"ai ene!, oi ene!, ogeta laugarrena san bartolome"**
Ai ene!, oi ene!, hogeta laugarrena San Bartolome
- ◆ **"andra mari martikotik amar egunera kukuek ez badeu jo, errobotibek eifn"**
Andra Mari martikotik hamar egunera kukuak ez badau jo, errobotibak egin
- ◆ **"natibittate, asebete"**
Natibidade, asebete
- ◆ **"san andres, txarridzek askan trabes"**
San Andres, txarriak askan trabes



**"san andres,
txarridzek
askan trabes"**
*San Andres, txarriak
askan trabes*

- ◆ **"san blas, itto arte arnas"**
San Blas, ito arte arnas
- ◆ **"kukuak, san josetan kuku, san pedrotan mutu"**
Kukuak, sanjoseetan kuku, sanpedroetan mutu
- ◆ **"san iurgi, artuek ereitteko goizegi; san markos, artuek ereinde balekoz"**
San Jurgi, artoak ereiteko goizegi; San Markos, artoak ereinda balegoz
- ◆ **"san simon eta san juda, joan zan uda eta negua heldu da"**
San Simon eta San Juda, joan zan udea eta negua heldu da
- ◆ **"udabarridxen makatza, udegoidxenien matsa"**
Udabarrian makatza, udagoienean mahatsa

8.- GUZURRA / EGIA

- ◆ **"eixtaridxeri erdidxe bakarrik siñistu"**
Ehiztariari erdia bakarrik sinistu
- ◆ **"egidxe, surren ondoan begidxe"**
Egia, surraren ondoan begia
- ◆ **"guzurre esan Getaridxen, etxeratu orduko ataridxen"**
Guzurra esan Getarian, etxeratu orduko atarian

◆ **"guzurrek, pausu laburre"**

Guzurrak, pausu laburra

◆ **"ixilik dauenak ez diño guzurrik"**

Isilik dagoanak ez dino guzurrik

9.- JAKITURIA

◆ **"dakidxenak daki ta
eztakidxenak baleki"**

Dakienak daki eta ez dakienak baleki

◆ **"jakittune sarritan ixilik,
ezjakiña ixildu eziñik"**

*Jakituna sarritan isilik, ezjakina
isildu ezinik*

10.- KAUSA-ONDORIOA

◆ **"ago zabal luze, logure
edo gose"**

Aho zabal luze, logura edo gose

◆ **"eurriek atzie erakusten deu"**

Aurreak atzea erakusten dau



"ixilik dauenak ez diño guzurrik"

Isilik dagoanak ez dino guzurrik

◆ **"eurriek erakusten deu atzie zelan erabili"**


Aurreak erakusten dau atzea zelan erabili

◆ **"egur txarra, su txarra"**

Egur txarra, su txarra

◆ **"mando merkie, usaban nekie"**

Mando merkea, ugazabaren nekea



- ◆ **"gabien ibilli, goixean agiri"**
Gauean ibili, goizean agiri
- ◆ **"ibilli adi arin eta jango dok me"**
Ibili hadi arin eta jango dok mehe
- ◆ **"joko bezperan erronka, bidxamonien errenka"**
Joko bezperan erronka, biharamunean herrenka
- ◆ **"lorarik ederrenak be zimeldu"**
Lorarik ederrenak be zimeldu
- ◆ **"lurre bigunau, arra barrurau"**
Lurra bigunago, harra barrurago
- ◆ **"on bille, on bille; bonbille"**
On bila, on bila; bonbilla
- ◆ **"surre ebai ezkerro, odola agora"**
Surra ebagi ezkerro, odola ahora
- ◆ **"txapan su, tximimian ke"**
Txapan su, tximinian ke
- ◆ **"umien zentzune, etxien entzune "**
Umearen zentzuna, etxean entzuna

◆ **"zelako enborra, alako adarra"**

Zelako enborra, halako adarra



"zelako enborra,
alako adarra"
*Zelako enborra,
halako adarra*

◆ **"zer ikusi, a ikesi"**

Zer ikusi, ha ikasi

◆ **"alaba bakar azidxe, etxerako gerra bizidxe"**

Alaba bakar hazia, etxerako gerra bizia

11.- AURKAKOTASUNA

◆ **"arranue egaz baño txepetxa eskuen oba"**

Arranoa hegaz baino txepetxa eskuan hoba

◆ **"barrien urrengoa, negarra"**

Barrearen hurrengoa, negarra

◆ **"bierrak bakartu, bierrak alkartu"**

Beharrak bakartu, beharrak alkartu

◆ **"burue bero, anakak otz"**

Burua bero, hankak hotz

◆ **"dabilena tripanði ta eztabillena buruandi"**

Dabilena tripehandi eta ez dabilena buruhandi



"gabarik luzienak be egunsentidzen amaia"
Gaurik luzeenak be egunsentian amaia

- ◆ **"gabarik luzienak be egunsentidzen amaia"**
Gaurik luzeenak be egunsentian amaia
- ◆ **"gero, gero, otz eztana, bero"**
Gero, gero, hotz ez dana bero
- ◆ **"artzeko pronto, emoteko tonto"**
Hartzeko pronto, emoteko tonto
- ◆ **"jakittune sarrittan ixilik, ezjakiñe ixildu eziñik"**
Jakituna sarritan isilik, ezjakina isildu ezinik
- ◆ **"ioanak asko, etorridxek gitxi"**
Joanak asko, etorriak gitxi
- ◆ **"lagun andidxe baño errezau da lagun txikidxe arrapetie"**
Lagun handia baino errezago da lagun txikia harrapetea
- ◆ **"lehenengo asune, gero lasune"**
Lehenengo asuna, gero lazuna

◆ **"negar da barre, kakaberde"**

Negar eta barre, kakaberde

◆ **"negar da barre, txise bolue"**


Negar eta barre, txisa bolua

◆ **"on e(g)iañen pague, atien atzien (ostien) palue"**

On eginaren pagua, atearen atzean palua

◆ **"ondo esan da
txarto eiañ"**

*Ondo esan eta
txarto egin*



**"negar da barre,
kakaberde"**
*Negar eta barre,
kakaberde*

◆ **"ur bedeinkatue ala ardao madarikatue obiaue?"**

Ur bedeinkatua ala ardao madarikatua hobea?

◆ **"urek eroan, urek ekarri"**

Urak eroan, urak ekarri

**"oilloak eskatzien txise
eiñ artien itxaron"**
*Oiloak eskaratzean txisa
egin artean itxaron*

12.- AJEAK, AKATSAK, DOHAINAK

◆ **"alaba bakar azidxe, etxerako gerra bizidxe"**

Alabea bakar hazia, etxerako gerra bizia

◆ **"ariñ ta ondo usoak bakarrik"**

Arin eta ondo usoak bakarrik

◆ **"arranuek lumek bier,
txepetxak be bai"**

*Arranoak lumak behar,
txepetxak be bai*

◆ **"oilloak eskatzien txise eiñ
artien itxaron"**

*Oiloak eskaratzean txisa
egin artean itxaron*



- ◆ **"asko dekot ez dabenantzat nai"**
"Asko daukat" ez dabenarentzat nahi
- ◆ **"eiztari txarrak eskopetieri erru"**
Ehiztari txarrak eskopeteari erru
- ◆ **"gari ona kaixatik saltzen da"**
Gari ona kaxatik saltzen da
- ◆ **"artzeko pronto, emoteko tonto"**
Hartzeko pronto, emoteko tonto
- ◆ **"igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa"**
Igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa
- ◆ **"itsuek be beittu eitten deu, baiña ikusi ez"**
Itsua be begiratu egiten dau, baina ikusi ez

13.- USTEAK

- ◆ **"balizko errotiek, urunik ez"**
Balizko errotak, urunik ez
- ◆ **"leku guztidxetan, txakurrak ortozik"**
Leku guztietan txakurrak ortozik

2.- GIZONA /EMAKUMEA

- ◆ **"agure buruzuri oillanda zalie, nok erakutsi deutsu gurera bidie!"**

Agure buruzuri oilanda zalea, nork erakutsi deutsu gurera bidea

- ◆ **"akerran buztenpien legorpe gitxi"**

Akerraren buztenpean, lehorpe gitxi

- ◆ **"ezkondu ta odolostak, beti berotan"**

Ezkondu eta odolostak, beti berotan

- ◆ **"ezkontza ta buzkentza, berorik"**

Ezkontza eta buzkentza, berorik

- ◆ **"gixon guztidexek burue baltz, zein dan ohea igartea gatx"**

Gizon guztiak burua baltz, zein dan hobia igartea gatx



- ◆ **"igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa"**

Igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa

- ◆ **"len arro zana, emaztien esanetan otzana"**

Lehen harro zana, emaztearen esanetan otzana

- ◆ **"zelako gonie, alako prakak ez dira falta"**

Zelako gonea, halako prakak ez dira falta

3.- ANTZERAKOTASUNA

- ◆ **"arrantza gure astoak, erantzun auzokoak"**

Arrantza gure astoak, erantzun auzokoak

- ◆ **"arranuek lumek bier, txepetxak be bai"**

Arranoak lumak behar, txepetxak be bai

- ◆ **"astoa kortan eta mandoa etxien "**

Astoa kortan eta mandoa etxean


◆ **"astoak mandoari, belarriandi" / "astoak muloari:
kendu adi ortik, belarri"**

*Astoak mandoari, "belarri-handi" / Astoak muloari:
kendu hadi hortik, "belarri"*



◆ **"a zelako parie, karakola ta barie"**

Ha zelako pare, karakola eta bare



**"a zelako parie,
karakola ta barie"**
*Ha zelako pare,
karakola eta bare*

◆ **"emen datoz iru neskatala: zuringo, gorringo ta maripantorrilla"**

Hemen datoz hiru neskatala: zuringo, gorringo eta maripantorrila

◆ **"kazuela bateko sardiñak, danak bardiñak"**

Kazuela bateko sardinak, danak bardinak

◆ **"nok esan leio astoari arre" / "nok astoari arre"**

Nork esan leio astoari arre / Nork astoari arre

◆ **"uno con otro, kattalin potro"**

Uno con otro, katalin potro

4.- ABERASTASUNA /TXIROTASUNA

- ◆ **"aberatsak, popan atsa"**
Aberatsak popan hatsa
- ◆ **"aberatsak, popan atsa; inpernuko lebatza"**
Aberatsak popan hatsa; inpernuko lebatza
- ◆ **"beti bierrien ta beti kaka morralien"**
Beti beharrean eta beti kaka-morralean

- ◆ **"dekonak badeko, ta eztekonak baleko"**
Daukanak badauka, eta ez daukanak baleuka

- ◆ **"bier utse, kaka utse"**
Behar hutsa, kaka hutsa
- ◆ **"dagoanean bon bon, ta eztagoanean egon"**
Dagoanean bon bon, eta ez dagoanean egon

"dekonak badeko, ta eztekonak baleko"
Daukanak badauka, eta ez daukanak baleuka



- ◆ **"dagoanean bon bon,
ta eztagoanean or konpon"**

Dagoanean bon bon, eta ez dagoanean hor konpon

- ◆ **"dauenien, bon ta eztauenien, egon"**


Dagoanean bon, eta ez dagoanean egon

- ◆ **"esnerik ez bada katiluan, zeozer txarra ikuilluan"**

Esnerik ez bada katiluan, zeozer txarra ikuiluan"

- ◆ **"ezebez: begireko ona, triparako ez"**

Ezer be ez: begirako ona, triperako ez



**"esnerik ez bada katiluan,
zeozer txarra ikuilluan"**
*Esnerik ez bada katiluan,
zeozer txarra ikuiluan"*

- ◆ **"ezkur urte, edur urte"**
Ezkur urte, edur urte
- ◆ **"gaurko ogidxe, bidxerko gosie"**
Gaurko ogia, biharko gosea
- ◆ **"goidxen zerue ta beien lurre"**
Goian zerua eta behean lurra
- ◆ **"joanak asko, etorridxek gitxi"**
Joanak asko, etorriak gitxi
- ◆ **"saldue, galdue"**
Saldua, galdua
- ◆ **"pazko euritsu, urte ogitsu"**
Pazko euritsu, urte ogitsu
- ◆ **"urrun, urrun, urune urrun" / "martimonteko txarridxek run run; ure urrien da urune urrun"**
Urrun, urrun, uruna urrun / Martimonteko txarriak run run; ura urrean eta uruna urrun

5.-DIRUA

- ◆ **"diru zeie, poltsiko meie"**
Diru zehea, poltsiko mehea

◆ **"dirue, irabaztie baño gastetie errezago"**

Dirua, irabaztea baino gastatea errezago

◆ **"ezebez, begireko ona, partikerarako ez"**

Ezer be ez, begireko ona, partikerarako ez

◆ **"kontuak kontu ta senarra boltseru"**

Kontuak kontu eta senarra boltseru

◆ **"emengo itturridxe akabe da"**

Hemengo iturria akabau da

6.- ITXURAKERIA

◆ **"arotzan etxien, otzara aurkidxe"**

Arotzaren etxean, otzarea aurkia

◆ **"balizko erroziek urunik ez"**

Balizko erroreak urunik ez

◆ **"errementaridxen etxien, zotza burduntzi"**

Errementariaren etxean, zotza burduntzi



"emengo itturridxe akabe da"
Hemengo iturria akabau da

"kanpoko larrosie, etxeko arantzie"
Kanpoko larrosea, etxeko arantzea



◆ **"etxien otso ta auzoan uso"**
/"kalien uso ta etxien otso"
/"kanpoan uso, etxien otso"

*Etxean otso eta auzoan uso /
Kalean uso eta etxean otso
/ Kanpoan uso, etxean otso*

◆ **"gizona, alegre kalien,
etxien gerrie"**

*Gizona, alegre kalean,
etxean gerrea*

◆ **"kanpo eder etxien gerrie /
kanpo eder etxe kakatsu"**

*Kanpoeder etxean gerra /
Kanpoeder etxe kakatsu*

◆ **"jaun kanpo-eder, etxekalte"**

Jaun kanpoeder, etxe kalte

◆ **"kanpoko larrosie, etxeko
arantzie"**


*Kanpoko larrosea, etxeko
arantzea*

◆ **"lehen harro zana, emaztien
esanetan otzana"**


*Lehen harro zana, emaztearen
esanetan, otzana*

7.- EGUTEGIA

- ◆ **"ai ene!, oi ene!, ogeta laugarrena san bartolome"**
Ai ene!, oi ene!, hogeta laugarrena San Bartolome
- ◆ **"andra mari martikotik amar egunera kukuek ez badeu jo, errobotibek eifn"**
Andra Mari martikotik hamar egunera kukuak ez badau jo, errobotibak egin
- ◆ **"natibittate, asebete"**
Natibidade, asebete
- ◆ **"san andres, txarridzek askan trabes"**
San Andres, txarriak askan trabes



**"san andres,
txarridzek
askan trabes"**
*San Andres, txarriak
askan trabes*



◆ **"jabe askon txakurre,
gosiek ill"**
*Jabe askoren txakurra,
goseak hil*

BUSTURIALDEKO

ESAKERAK



◆ **"lunes gernikes,
golperik pez"**
*Lunes gernikes,
kolperik be ez*

SARRERA

BUSTURIALDEKO ESAKERAK

Esakerak, esakuneak, esaera zaharrak, atsotitzak, erranairuak... modu askotara deitzen jake. Liburutxu honetan aurkituko dozuzanak ez dira Busturialdean gaur egun erabilten diran esakune guztiak, baina hemen dagozanak danak dira gure eskualdean baturikoak. Euskeraz bizi diran lagunen ahotik harakoak dira eta hortxe dago, hain zuzen be, lan honen aportaziorik handiena: gaur egun eta gure eskualdean jasorikoak dirala. Eskualdeko esakerak dirala dinogunean ez dogu pentsau behar beste eskualde edo herrialde batzuetan erabilten ez diranik, honeetako asko Euskal Herriko beste edozein lekutan be entzun ahal izango dira-eta.

Folklorea eta etnologia. Herriaren antxinako uste, jokabide eta tradizinoak. Gaixotasunak osatzeko bideak, erlijinoaren ganeko eritxiak, jaiak, naturari buruzko siniskerak... ea; danetarik aurkituko dozu ondorengo orrialdeotan. Gotzon Garatek dinon moduan “beste hitzez azal litekeena molde bikainez esateko bideak dira” esakerak.. Baina gehiago be esan leiteke; beste modu batera nekez edo ozta-ozta adierazoko dana, hiru-lau berbatan erraz ulertzeko eran emoten da esateko era berezi honeekaz. Zelan esan ete lei diru zeie, poltsiko mehie hizkera arruntean? Edo zenbat orrialde beharko leukez psikopedagogo batek, esate baterako, umien zentzune etxien entzune esakuneak hain garbi eta zehatz agertzen dauana azaltzeko?

Lan hau egiterakoan, orain artekoetan lez, didaktikotasuna bilatu dogu beste edozer baino lehen, kontuan harturik batez be gazte jenteari zuzenduriko ahalegina dala. Ikusiko dozunez, erraz ulertzeko moduko sailkapena egin dogu osterantzeko

EGILEAK:

Busturialdeko Hizkuntza Normalizazioa

Jon Andoni Uriarte (Seber Altube Ikastola)

Marta Abaitua (Arozena-Barrueta BHI)

Pedro Mari Gezuraga (Barrutialde BHI)

Eukene Arrien (San Fidel Ikastola)

Nerea Jaio (B10 Berritzegunea)

Elixabete Alegria (Arozena-Barrueta BHI)

IRUDIGILEA: Mikel Egia

Testua, LABAYRUK gainbegiratua

Lege Gordailua: BI-0000-03

Maketazioa eta Inprimaketa: GRAFICAS AMOREBIETA



Gernika-Lumoko Udala



Bermeoko Udala

sailkapen formalagoak bazter batera itxita. Gainera, esakera batzuk irudiakaz lagunduta ipini doguz argigarri izatetik aparte atseginagoa be egiten dalako.

Esakera bakotxaren sartukera egiterakoan atal bi bereiztu doguz; lehenengoa, eskualdeko ahoskera erakusten dauan grafian idatzita dagoana eta honen azpian, gaur egungo arau ortografikoak gogoan izanda idatziriko aldaera. Transkripzinoak egiterakoan modu berezia erabili dogu, beti be erraztasuna eta didaktikotasunaren izenean. Mendebalde osoan "z" ahoskatzen ez dogula jakinda be, "z" eta "s" biak idatzi izan doguz, esakera zelan ahoskatzen dan jakiteko arazorik sortzen ez daualako eta ganera jentea holan idatzita ikusten ohituta dagoalako. Bardin-bardin egin dogu "ts" eta "tz" fonemakaz be, jakinda lehenengoa ez dogula hemen ahoskatzen. Fonema sabaikariei jagokenez, "ll", "ñ" eta "tt" erabili dira eta berba amaierako "i+a" fenomenoaren ondorioz sortzen dan kontsonante sabai-aurreko berezia "dx" grafiagaz transkribidu dogu, "herridxe", "ogidxe"... berbetan agertzen dana, hain zuzen be.

Gure lantxu hau, eskualdeko gazteen berbeteari bizitasuna eta gauzak di-da baten esateko modua eskeintzeko ahalegin bat besterik ez da. Ez da, ba, horixe berbera gazteek hizkuntzari eskatzen deusi? Euskerak badauka gaitasun hori, ze Axularrek XVII. mendean esan eban moduan "hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak". Hauxe da izan be gure mezua: euskerak euki badauka, topau daiogun.

Beste barik, asko gozatu eta beste hainbeste ikasi!

**BUSTURIALDEKO IKASTETXEETAKO
HIZKUNTZA NORMALIZAZINORAKO TEKNIKARIAK**

SAILKAPENA

1. Eguraldia	6
2. Gizona /Emakumea	8
3. Antzerakotasuna	9
4. Aberastasuna Txirotasuna	12
5. Dirua	14
6. Itxurakeria	15
7. Egutegia	17
8. Guzurra /Egia	18
9. Jakituria	19
10. Kausa-Ondorioa	19
11. Aurkakotasuna	23
12. Ajeak, akatsak, dohainak	26
13. Usteak	27
14. Garai eta asmo onak	29
15. Eretxiak	29
16. Osasuna	30
17. Ardurak	31
18. Aholkuak	32
19. Irainak	33
20. Beste batzuk	33

1.- EGURALDIA

◆ **"alba gorri, aixe edo euri"**

Alba gorri, haize edo euri

◆ **"apirille euritsu, urte ogitsu"**

Apirila euritsu, urte ogitsu

◆ **"eguzkidxe ta euridxe, martiko eguraldidxe"
/ "eguzkidxe ta euridxe, neguko eguraldidxe"**

Eguzkia eta euria, martiko eguraldia / neguko eguraldia

◆ **"ezkur urte, edur urte" / "urte ezkur, negue edur"
/ "edur urte, ezkur urte" / "edur urte, ogi urte"**

*Ezkur urte, edur urte / Urte ezkur, negua edur / Edur urte, ezkur urte
/ Edur urte, ogi urte*

◆ **"goiz gorri, illuntze euri" / "goiz gorri, arrats euri"
/ "arrats gorri, goiz aixe" / "illuntze gorri, goiz iturri"**

*Goiz gorri, illuntze euri / Goiz gorri, arrats euri / Arrats gorri, goiz haize
/ Illuntze gorri, goiz iturri.*

◆ **"edoi gorri, aixe edo euri"**

Hodei gorri, haize edo euri

◆ **"maiatzien erdidxe, otzak ill; beste erdidxe, beroak erre"**

Maiatzaren erdia, hotzak hil; beste erdia, beroak erre

**"maiatzien erdidxe, otzak ill;
beste erdidxe, beroak erre"**
*Maiatzaren erdia, hotzak hil;
beste erdia, beroak erre*



◆ **"pazko euritsu, urte ogitsu"**

Pazko euritsu, urte ogitsu

◆ **"illien biko euridxe, ille guztiko euridxe
/ illien bata, bidxe, zazpidxe euridxe; ille guztidxe euridxe"**

*Hilearen biko euria, hile guztiko euria / hilearen bata, bia, zazpia euri;
hile guztia euria*

◆ **"san bixenti otza, neguen bidxotza"**

San Bixenti hotza, neguaren bihotza